




# 2017






etxeparesaria.eus

## Ainara Azpiazu Aduriz eta Paula Estévez Del Diego egileek irabazi dute 2017ko Etxepare saria *ARRAROA* albumarekin

Etxepare sarian 26 lan aurkeztu dira.

**Lan irabazlea:** Haur batek gaurko gizartearen aniztasunari erreparatzen dio bere etxeko leihotik. Neskatoak hamabi egoera bitxi aurkezten dizkigu eta modu sinple bezain grafikoan egiten du auzokide bakoitzaren argazkia, biñeta gisa, topikoei ihesi, eta benetako errealitatea agerian utziz.

**Epaimahaia:**

Yolanda Arrieta (idazlea)
Maite Gurrutxaga (ilustratzailea)
Asun Agiriano (album ilustratuan aditua)

Epaimahaikideek azpimarratutakoa:

*"Egileek modu bikainean elkartu dituzte hitza eta irudia. Testuaren bidez egoerak aurkeztu ahala, irudien bidez egoera horiek bizia hartzen dute, umorea lagun eta detaileei arreta jarrita. Hizkuntza biek originaltasuna, indarra eta askatasuna erakusten dute. Kolore biziek, berriz, areagotu baino ez dute egiten lanari darion bizipoza.*

***ARRAROA** lan ausarta eta grafikoki interesgarria da. Album ilustratuaren definizioari trebeki heltzen dio, testua irudiaren bidez osatzen delarik, eta baita alderantziz ere. Tonua album guztian mantentzea lortzen du, liburu orekatua lortuz.*

*Album ilustratu honek estereotipoak alboratzeko proposamen umoretsua eskaintzen digu eta, aldi berean, irakurleoi gogoeta egiteko aukera helarazten."*

**Saria**: Sari bakarra eman da, 5.000 eurokoa, egile eskubideen aurrerapen moduan.

**Argitalpena**: Saritutako lana Pamiela argitaletxeak argitaratuko du, euskaraz, 2017ko udazkenean.

## Ainara Azpiazu Aduriz y Paula Estévez Del Diego han ganado el Premio Etxepare 2017 con el álbum *ARRAROA*

A esta edición se han presentado 26 obras.

**Obra premiada:** Una niña observa desde la ventana de su casa la diversidad de la sociedad actual. La chica nos presenta doce situaciones peculiares y retrata, a modo de viñeta, a cada vecino y vecina de una forma sencilla y gráfica a la vez, huyendo de los tópicos, y mostrando la auténtica realidad.

**Jurado:**
Yolanda Arrieta (escritora)
Maite Gurrutxaga (ilustradora)
Asun Agiriano (experta en album ilustrado)

Qué aspectos ha subrayado el jurado:
(Texto traducido)

*"Las autoras han unido de forma excelente el texto y la imagen. Mientras que con el texto nos presentan las situaciones, a través de las imágenes esas situaciones cobran vida, acompañadas de humor y haciendo hincapié en los detalles. Ambos lenguajes muestran originalidad, fuerza y libertad. Asimismo, los colores vivos no hacen sino intensificar la alegría de vivir que transmite la obra.*

***ARRAROA** es un trabajo valiente y gráficamente interesante. Se ajusta hábilmente a la definición de álbum ilustrado, de forma que el texto se complementa con la imagen y viceversa. Logra mantener el tono durante todo el álbum, y consigue un libro equilibrado.*

*Este álbum ilustrado nos hace una simpática propuesta para dejar a un lado los estereotipos y, al mismo tiempo, nos ofrece la posibilidad de reflexionar a los lectores y las lectoras."*

**Premio:** Se ha concedido un único premio de 5.000 €, como adelanto de derechos de autor(a).

**Publicación:** La obra premiada lo publicará la editorial navarra Pamiela, en euskera, en otoño de 2017.




# 2017




**etxeparesaria.eus**

## Saridunei buruzko informazioa:

Ainara Azpiazuren (Axpi) biografia eta argitaratutako lanak:

**ainaraxpi.blogspot.com**

## Información sobre los autores de la obra:

Ainara Azpiazu (Axpi), biografía y trabajos publicados:



**Ainara Azpiazu Aduriz (Axpi)**, Hernanin jaioa, marrazkilaria da. Soziologia lehenengo eta gero Arte Ederrak ikasi zituen EHUn eta 2007tik aurrera ilustraziogintza, komikigintza, horma-irudigintza eta ume eta gazteekin tailerrak egitetik bizi da. Besteak beste, Berria, Hernaniko Kronika, Irrien lagunak eta Gararen Zazpika gehigarrian kaleratu ditu binetak.

Ilustratzaile gisa hainbat liburu eta argitalpen plazaratu ditu dagoeneko. Azkenen artean daude *Nahla* (Ibaizabal), *Printzesa Pixontzia* (Elkar), *Hartz Izozkijalea* (Minis) edo *Mozoloaren bidea* (Dobera). Komikigintzan, paperean zein H28 bezalako euskarri digitaletan aritzen da. Horma-irudi ugari egin ditu Donostialdean bereziki. Umore grafikoa eta komikigintza gai modura hartuta tailerrak burutzen ditu ume eta gazteekin.

**Ainara Azpiazu Aduriz (Axpi)**, nacida en Hernani, es dibujante. Estudió Sociología primero y Bellas Artes después en la UPV. A partir de 2007 de dedica a la ilustración, cómic, murales y a impartir talleres infantiles y juveniles. Ha publicado viñetas en Berria, Hernaniko Kronika, Irrien Lagunak y en el suplemento Zazpika de Gara, entre otros.

Es autora de varios libros y publicaciones como ilustradora. Entre otros, *Nahla* (Ibaizabal), *Printzesa Pixontzia* (Elkar), *Hartz Izozkijalea* (Minis) o *Mozoloaren bidea* (Dobera). La creación de cómics la desarrolla tanto en papel como en soportes digitales tales como H28. Ha realizado numerosos murales, sobre todo en la comarca de Donostia. Valiéndose del humor gráfico y la creación de cómics como motivo, realiza talleres infantiles y juveniles.

Paula Estévezen biografia eta argitaratutako lanak:



Paula Estévez, biografía y trabajos publicados:

**paulaestevez.com**






# 2017






## etxeparesaria.eus

**Paula Estévez Del Diego**, Donostian jaioa, komiki marrazkilari eta ilustratzailea da. Argazkigintza eta ikus-entzunezkoetan espezializatutako Arte Eder ikasketak amaitu ondoren, Berlinera joan zen bizitzera, non marrazketa berreskuratu zuen, txikitako grina.

Ordutik bere lana komiki, ilustrazio eta animaziora zuzendu du, autoedizioan indar berezia ipiniz. Donostiara itzultzean, Mikel Larraioz eta Maite Caballero marrazkilariekin batera, Guillotina sortu zuen, Donostiako lehen Autoedizio Topaketa. Egun laugarren ediziotik dioana.

2011tik hona autoeditatutako sei argitalpen egin ditu eta aldizkari eta fanzine ezberdinetan ikus daiteke bere lana: Gaztezulo, Hijos Acabados, Berlin Scrawling, So International Zine, besteak beste.

**Antolatzaileak**: Etxepare saria Nafarroako 20 toki entitateek, haien euskara zerbitzuen bidez, antolatzen dute. Hona zerrenda:

- Agoizko Udala
- Antsoaingo Udala
- Atarrabiako Udala
- Barañaingo Udala
- Baztango Udala
- Berriobeitiko Udala
- Berriozarko Udala
- Bortzirietako Euskara Mankomunitatea
- Burlatako Udala
- Esteribarko Udala
- Garesko Udala
- Irantzu Mankomunitatea
- Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea
- Lizarrako Udala
- Malerrekako Mankomunitatea
- Sakanako Mankomunitatea
- Tafallako Udala
- Uharteko Udala
- Zaraitzu eta Erronkariko Batzorde Nagusiak
- Zizur Nagusiko Udalaren Kultur Patronatua.

**Laguntzailea**: Pamiela argitaletxea.

**Sariaren historia:** Nafarroako 20 toki-entitateek, haien euskara zerbitzuen bidez, Nafarroan literatura sari esanguratsu baten hutsunea zegoela ikusirik, eta, beraz, literatur lehiaketen alorrean erreferentzia izanen zen saria sortzeko xedearekin, Etxepare sariak antolatu zituzten 2004an. Etxepare sariek haur, gazte eta helduentzako literatura saritu

**Paula Estévez Del Diego**, nacida en Donostia, es dibujante de cómics e ilustradora. Tras finalizar estudios de Bellas Artes con especialización en fotografía y audiovisuales, se fue a vivir a Berlín. Es allá donde recuperó el dibujo, su pasión desde niña.

Desde entonces ha encauzado su obra hacia el cómic, la ilustración y la animación, con especial hincapié en la autoedición. Cuando volvió a Donostia creó Guillotina, junto con los dibujantes Mikel Larraioz y Maite Caballero, el primer Encuentro de Autoedición de Donostia. Hoy día ha alcanzado su cuarta edición.

Desde el 2011 ha realizado seis publicaciones autoeditadas, y se puede encontrar obra suya en diversas revistas y fanzines: Gaztezulo, Hijos Acabados, Berlin Scrawling, So International Zine entre otros.

**Organizadores**: El Premio Etxepare lo organizan 20 entidades locales de Navarra, a través de sus servicios de euskera. La relación de ellas es la siguiente:

- Ayuntamiento de Aóiz
- Ayuntamiento de Ansoáin
- Ayuntamiento de Villava
- Ayuntamiento de Barañain
- Ayuntamiento de Baztan
- Ayuntamiento de Berriplano
- Ayuntamiento de Berriozar
- Mancomunidad de euskera de Borziriak
- Ayuntamiento de Burlada
- Ayuntamiento de Esteribar
- Ayuntamiento de Puente la Reina
- Mancomunidad de Iranzu
- Mancomunidad de euskera del norte de Navarra
- Ayuntamiento de Estella-Lizarra
- Mancomunidad de Malerreka
- Mancomunidad de Sakana
- Ayuntamiento de Tafalla
- Ayuntamiento de Huarte
- Juntas Generales de Salazar y Roncal
- Patronato de Cultura del Ayuntamiento de Zizur Mayor

**Colabora:** Editorial Pamiela.

**Trayectoria del Premio:** Un grupo de entidades locales de Navarra (20), a través de sus servicios de euskera, ante la inexistencia de un premio literario de cierta relevancia en euskera, y, por tanto, con el objetivo de crear un certamen que sirviera de referencia en el campo de los concursos literarios, crearon los premios literarios Etxepare en 2004. Estos





# 2017





## etxeparesaria.eus

zuten bi ediziotan.

2006tik aurrera, Etxepare haurrentzako albumak sortzeko beka bihurtu zen, euskaraz sortutako albumen produkzioa sustatzeko helburuarekin. Izan ere, euskaraz argitaratzen diren album gehienak itzulpenak dira, eta ez euskaraz sortuak. Euskarazko album sorrera bultzatzen duen beka edo lehiaketak urriak dira, eta, alde horretatik, ekimen berritzailea dugu hau.

Bestalde, albumak dituen ezaugarriengatik garestia da bere produkzioa. Argitaratzeko zailtasun hori bihurtzen da, hain zuzen, albumak sortzeko oztopo nagusi. Beraz, Etxepare sariaren helburuak betetzeko ez da nahikoa saria ematearekin, lanak argitaratzen ere lagundu behar da. Horrela, saritutako lana Pamiela argitaletxe nafarrak argitaratzen du.

2009az geroztik Etxepare beka izateari utzi eta saria bilakatu da. Horiek horrela, lehiatuko diren albumak bukatuta aurkeztu beharko dituzte lehiakideek.

premios Etxepare, en sus dos primeras ediciones, galardonaron la literatura dirigida a niños y niñas, jóvenes y personas adultas.

A partir de 2006, Etxepare se convirtió en una beca para la creación de álbumes infantiles, con el objetivo de impulsar la producción de textos ilustrados creados en euskera, dado que la mayoría de los álbumes que se publican en euskera son traducciones. Son muy escasos las becas o concursos que impulsan la creación de álbumes en euskera, y, desde ese punto de vista, ésta es una actividad innovadora.

Por otro lado, y debido a las características propias de los álbumes, su producción es cara. Esa característica para su publicación es lo que se convierte en el impedimento principal para crear álbumes. Por tanto, para lograr los objetivos del premio Etxepare, no es suficiente con dar el premio, también hay que impulsar la publicación de los trabajos. Así que, la editorial navarra Pamiela es la que publica la obra premiada.

En el año 2009 Etxepare dejó de ser una beca para convertirse en premio, de forma que, actualmente, las obras se presentan en álbumes terminados.

**Aurreko edizioetako saridunak:** **Premiados y premiadas en ediciones anteriores:**

| **Urtea/ Año** | **Lana/ Obra** | **Egileak/ Autores y autoras** |
|---|---|---|
| 2016 | *Zerua gris dago* | Liébana Goñi Yárnoz eta Isaak Martínez Ortíz |
| 2015 | *Munstroek ere pixa egiten dute ohean* | Pello Añorga eta Jokin Mitxelena |
| 2014 | *Hiltzaileak* | Leire Salaberria |
| 2013 | *Gerrak ez du izenik* | Leire Bilbao eta Maite Mutuberria |
| 2011 | *Hara!* | Miren Asiain |
| 2010 | *Euria ari duenean* | Leire Salaberria |
| 2009 | *Alex, nire laguna* | Mikel Gurrutxaga eta Maite Gurrutxaga |
| 2008 | *Katalina kontalari* | Iñaki Zubeldia eta Estibalitz Jalón |
| 2007 | *Zirkua amets* | Joxan Ormazabal eta Iraia Okina |
| 2006 | *Gerlari handia* | Pello Añorga eta Jokin Mitxelena |

Irabazleekin harremanetan jartzeko: / Para contactar con las premiadas

**Ainara Azpiazu Aduriz (Axpi) – 652 702 521 - axpikoaxpi@hotmail.com**
**Paula Estévez Del Diego – 654 075 043 – paulaestevezd@gmail.com**